CANNES DOCS
MARCHÉ DU FILM

ZINEBI 66
Official Selection
Zinebi First Film
Bilbao 2023

Festival Internacional de Cine de Gijón/Xixón

# 1501Z

## Udako sesioak

STEREO

LG BI 1561-2023

DOXAPRODUCCIONES.COM

1976 - 1988

# 1501Z

## Udako sesioak

ATERAFILMS

GOBIERNO DE ESPAÑA · MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTE · icaa

EUSKO JAURLARITZA · KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA · GOBIERNO VASCO · DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGÜÍSTICA

Bizkaia · foru aldundia · diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia · Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes

ETORKIZUNA ORAIN · Es futuro

Mutrikuko Udala

Debako Udala

DANOBATGROUP

eitb

DOXA

03 FITXA TEKNIKOA ETA ARTISTIKOA

05 SINOPSIA

06 ZUZENDARIEN OHARRAK

07 BIOFILMOGRAFIAK

12 PROMOZIOKO MATERIALAK

13 PALMARESA

14 CLIPPING-A

15 KONTAKTUA

ETA ARTISTIKOA



100’ | Kolorea

J.B. Euskera — Gaztelania

4K | DOLBY 5.1

Azpitituluak: Euskera — Gaztelania — Ingelesa

ETA ARTISTIKOA

ETA TEKNIKOA

# KREDITUAK

| | |
|---|---|
| IZENBURUA | ITOIZ UDAKO SESIOAK |
| GENEROA | DOKUMENTALA, ARTXIBOA ETA FIKZIOA |
| EKOIZPEN-ETXEA | DOXA PRODUCCIONES |
| AKTOREEN ZERRENDA | JUAN CARLOS PÉREZ, JOSÉ GARATE (FOISIS), JOSÉ ANTONIO FERNÁNDEZ (ANTTON), JIMMY ARRABIT, JEAN-MARIE ECAY, GERMÁN ORS, BERNARDO ATXAGA, JOSÉ LASTRA, JON GALARRAGA, ERITZ URKIRI, UNAI FERNÁNDEZ, PEIO BILBAO, ENEKO PALENZUELA, ARNATZ PUERTAS, ALBAR CIRARDA, GORKA LUNA, IÑIGO CRUZ, GABRIEL OCINA, ALEX QUIROGA, ENEKO IRASTORZA, AITZOL BARBARIAS, GALDER TUDELA, MAREN BIDAURRAZAGA |
| GIDOIA ETA ZUZENDARITZA | LARRAITZ ZUAZO, ZURI GOIKOETXEA ETA AINHOA ANDRAKA |
| EKOIZPEN EXEKUTIBOA | AINHOA ANDRAKA, ZURI GOIKOETXEA |
| MUSIKA | ITOIZ |
| ARGAZKI-ZUZENDARITZA | TXARLI ARGIÑANO |
| ARTE-ZUZENDARITZA | KOLDO JONES |
| EKOIZPEN-ZUZENDARITZA | ITZIAR GARCÍA ZUBIRI |
| MUNTAKETA | AINHOA ANDRAKA ETA LARRAITZ ZUAZO |
| ZUZENEKO SOINUA | ANDREA SÁENZ, JULEN VALMASEDA, XANTI SALVADOR |
| SOINU-MUNTAKETA ETA -NAHASKETA | XANTI SALVADOR |
| JANTZIEN DISEINUA | CAROLINA DUARTE |
| MAKILLAJE BURUA | ANA PÉREZ VEGA |
| ILE-APAINTZAILE BURUA | LEIRE ZURDO |
| ARGAZKI FINKOA | JUAN LUIS MARKAIDA |
| POSTPRODUKZIOA ETA KOLOREA | NACHO G.CARREIRO |
| DISEINU GRAFIKOA | VEDIA DESIGN STUDIO |

KREDITU LABURTUAK

## LOGLINE-A

ITOIZ talde ikonikoaren muinerako bidaia Juan Carlos Pérez liderraren eskutik.

## SINOPSIA

ITOIZ talde ikonikoaren liderra den Juan Carlos Pérezek hausnarketa egiten du bere taldea desegiteko hartutako erabakiaz, unerik gorenean zegoela, gaur egun oraindik ere ukatzen duen poparantz estiloa era argian aldatu ondoren. Horrela, Juan Carlosek taldearen muinerako bidaia katartikoa hasiko du, taldearen hastapenak berriz biziz, 1970eko hamarkadan Mutrikuko rock talde progresibo bat zela, iraganarekin adiskidetu ahal izateko.

SINOPSIA

# ITOIZ Udako sesioak



ZUZENDARIEN OHARRAK

Duela hogeita hamasei urte, Juan Carlos Pérezek, ITOIZ euskal taldeko buruak, 1980ko hamarkadaren erdialdeko musika-arloan eragin handiena izan zuen taldeetako bat desegin zuen, hamar urteko ibilbide labur baina biziaren ondoren. Ordutik, isiltasuna izan da Juan Carlosek eman dien erantzuna taldea desegiteko inguruabarrak argitzeko jaso dituen eskaera etengabeei.

Urte horietan, hainbat motatako proiektutan parte hartzeko eskaintzak baztertu ditu, baita taldea berregitekoak ere. Baina musikariaren lehen konposizioak entzuteko material berria aurkitu ondoren, Juan Carlosek beharra sentitu du taldearen benetako esentzia berarentzat zer den berrikusteko.

Filma memoria-ariketa eta prozesu artistiko subjektiboa da, Juan Carlos Pérezen barne-munduari atea irekitzen diona. Ukitu surrealistak dituen mundua da, eta batzuetan zaila da bereiztea zein diren oroitzapenak eta zer den errealitatea. Metrajean, batera elkartzen dira urteetan zehar aurkitu ditugun dokumentalak, fikzioa eta artxibo-sekuentzia argitaragabeak. Bidaia honetan bat egiten dute testuinguru historikoak, oroitzapenen berrinterpretazioak eta erantzunen bilaketak; eta, azkenean, Juan Carlosek bere iraganarekin konektatuko du berriz, eta, aldi berean, duela 36 urtetik egiteke zituen kontu asko azalduko ditu.

Dokumentuei dagokienez, Juan Carlosek taldearen artxibo argitaragabeak arakatu ditu, Itoizen funtsa bereizten saiatuz; eta taldearen historian giltzarri izan diren pertsonak agertzen dira, errealismo magikoz inguratutako topaketak, ezin baita jakin benetakoak diren edo Juan Carlosen irudimenaren emaitza diren. Fikzioek Juan Carlosen haurtzaroko eta gaztaroko mugarriak birsortzen eta berrinterpretatzen dituzte, 1970eko hamarkadako Mutriku eta inguruetakoak, une horiek musikalki eta emozionalki markatu baitzuten.

Artxiboari dagokionez, urteak daramatzagu lan handia egiten garai hartako eta bandaren dokumentazioan, bertako hedabideen bidez eta Itoizen zale eta jarraitzaile ugariri ahoz aho deitzen, batzuek taldearen artxibo argitaragabea gordetzen baitzuten etxean. Prozesu horretan agertu dira argazkiak, bideoak eta egunkaritako artikuluak, baita kasete-zinta eta taldearen hasierako grabazio argitaragabeak ere. Horien artean, "Udako sesioak", 14 urte besterik ez zituztela Foisisek eta Juan Carlosek grabatu zuten kasete-zinta, filmari izena ematen diona, baita Ezekiel diskoaren maketa ere.

Aurkikuntza horiek funtsezkoak izan dira filma egiteko, eta aukera eman digute taldearen sorkuntzan eta hastapenetan sakontzeko. Gure asmoa da nabarmentzea Mutrikuko, Ondarroako eta Eibarko bost gaztek baliabide mugatuekin lortu zutena, aurkako testuinguru politiko eta sozial batean, rock izar bihurtzeko ametsaren bila zebiltzala. Espero dugu tresna zinematografiko hau inspirazioa izatea belaunaldi berrientzat, nahi duten lekura eta aukeratzen duten moduan proiektatzeko. Eta nork daki? Agian, benetako rock izar bihurtzeko.

# LARRAITZ ZUAZO

## BIOLOGRAFIA

2003tik ikus-entzunezkoen munduan murgilduta dago Larraitz, eta, gaur egun, Begira Produkzioak-en produktore exekutibo eta errealizadore aritzeaz batera, zuzendari, muntatzaile eta gidoilari gisa alderdi zinematografikoagoa lantzen du, dokumentala eta bideokliparen inguruan.

Bere lehen lan dokumentalak esparru sozial zehatz batean kokatzen dira, Frankismoaren ondoren Euskal Herrian izan ziren bi langile-borroka garrantzitsuenen erretratu baitira: *NOSOTRAS, MUJERES DE EUSKALDUNA* eta *163 DÍAS, LA HUELGA DE BANDAS*. Geroago ingurune artistikoago batean murgildu zen, besteak beste, *ESTHER FERRER, HILOS DE TIEMPO* eta *EKILIBRISMOAREN ARTEA* proiektuekin.

Musikarekiko pasioak eta bideokliparen hizkuntzak bultzatuta, Larraitzek proiektu sortzaileagoak zuzendu ditu, eta gaur egun bete-betean murgildu da 1980ko hamarkadako Euskadiko talde ikonikoenetako baten historian, ITOIZ rock taldearen historian.

| | |
|---|---|
| **2024** | *XIBEROA KANTUZ LORATURIK* — Dokumentalaren zuzendarikidetza (Begira Produkzioak) |
| **2024** | *ITOIZ UDAKO SESIOAK* — Dokumentalaren zuzendarikidetza (Doxa Producciones) |
| **2023** | *GERNIKA BIZIRIK* — Bideokliparen zuzendaritza (Begira Produkzioak, ekoizten) |
| **2020** | *EKILIBRISMOAREN ARTEA* — Dokumentalaren zuzendarikidetza (Begira Produkzioak) |
| **2020** | *ANESTESIA DIGITALA* — Bideokliparen zuzendaritza Koban musika-taldearentzat |
| **2019** | *ESTHER FERRER - HILOS DE TIEMPO* — Dokumentalaren muntaketa (Josu Rekalde) |
| **2018** | *BAI, BAGARA!* — Dokumentalaren zuzendaritza, Iñaki Goirizelaiaren ideia originala (Wotiak Film Services) |
| **2017** | *163 DÍAS. LA HUELGA DE BANDAS* — Dirección del documental (Doxa Producciones) |
| **2016** | *NOSOTRAS, MUJERES DE EUSKALDUNA* — Dokumentalaren zuzendarikidetza (Zinebi) |
| **2003** | *POR* — Dokumentalaren zuzendarikidetza (Parallel40) |

# ZURI GOIKOETXEA

## BIOFILMOGRAFIA

2010etik gidoilari, zuzendari eta ekoizle gisa lan egiten du, hasieran hainbat talde artistikorekin lankidetzan, eta, 2016tik, Doxa Producciones-ekin batera. Bere lanaren ezaugarri nagusia zinema dokumentalaren eta bideoartearen arteko elkargunean mugitzea da.

Besteak beste, *592 METROZ GOITI* (Maddi Barber, 2018), *MESETA* (Juan Palacios, 2019), *FANTASÍA* (Aitor Merino, 2021), *CABEZA Y CORAZÓN* (Ainhoa Andraka eta Zuri Goikoetxea, 2022) eta *IN A NEARBY FIELD* (Laida Lertxundi eta Ren Ebel, 2023) filmetan parte hartu du.

Lan horiek nazioarteko jaialdietan aukeratu eta saritu dituzte: Visions du Réel, CPH: DOX, Viennale, Guadalajarako Nazioarteko Zinemaldia, SSIFF, FICX eta Documenta Madrid.

Bere lorpenen artean bereziki nabarmentzen dira 2021ean BerlinaleTalent hautatua izana, 2018an Madrileko Mataderoko ikus-entzunezko egonaldia *CABEZA Y CORAZÓN* filmarekin, eta 2021ean Paul B. Preciadok komisariatutako *CABELLO/CARCELLER*-en *AHOTS BAT ERAUSORENTZAT* erakusketaren ekoizpena Azkuna Zentroan. Gainera, *ITOIZ UDAKO SESIOAK* proiektua Cannes Docs 2023ko Work in Progress-en hautatu zuten.

| | |
|---|---|
| **2025** | *ALTXALILIAK* — Maia Iribarne — Koprodukzioa Gastibeltza-rekin, Frantzia (garatzen) |
| **2025** | *ULTRAMARINO* — Maren Zubeldia, Silvina Guglielmotti (ekoizten) |
| **2024** | *LE PRIME VOLTE* — Giulia Cosentino, Perla Sardella. Koprodukzioa Malfé Film-ekin, Italia |
| **2024** | *ITOIZ UDAKO SESIOAK* — Larraitz Zuazo, Zuri Goikoetxea, Ainhoa Andraka |
| **2024** | *¡CAIGAN LAS ROSAS BLANCAS!* — Albertina Carri — Koprodukzioa Gentil Cine (Argentina), El Borde (Argentina) eta Punta Colorada-rekin (Brasil) |
| **2023** | *IN A NEARBY FIELD* — Laida Lertxundi, Ren Ebel |
| **2022** | *CABEZA Y CORAZÓN* — Ainhoa Andraka, Zuri Goikoetxea |
| **2021** | *FANTASIA* — Aitor Merino |
| **2019** | *MESETA* — Juan Palacios |
| **2018** | *592 METROZ GOITI* — Maddi Barber |
| **2017** | *163 DÍAS. LA HUELGA DE BANDAS* — Larraitz Zuazo |
| **2016** | *EL FUEGO DORMIDO* — Iván Gómez, Zuri Goikoetxea |

# AINHOA ANDRAKA

## BIOFILMOGRAFIA

Doxa Producciones-en gidaritzapean, zinema dokumentalaren muntaketa, gidoia, ekoizpena eta zuzendaritza uztartzen ditu. *ASIER ETA BIOK* (Amaia eta Aitor Merino, 2014), *592 METROZ GOITI* (Maddi Barber, 2018), *MESETA* (Juan Palacios, 2019), *FANTASIA* (Aitor Merino, 2021), *CABEZA Y CORAZÓN* (Ainhoa Andraka eta Zuri Goikoetxea, 2022) eta *IN A NEARBY FIELD* (Laida Lertxundi eta Ren Ebel, 2023) filmak egin ditu, zeinak SSIFF, CPH: DOX, Bafici, Visions du Réel, FICG, Pesaro Film Festival, Zinebi, Documenta Madrid eta Festival de Málaga jaialdietan programatu eta saritu dituzten, besteak beste.

Gaur egun *¡CAIGAN LAS ROSAS BLANCAS!* koproduzitzen ari da Argentina (Gentil y El Borde) eta Brasilekin batera (Punta Colorada), Albertina Carrik zuzendutako fikziozko film luzea, 2025. urtearen hasieran estreinatuko dena. Italiarekin *LE PRIME VOLTE* (Perla Sardella, Giulia Cosentino) film laburra ekoizten ari da, baita *ULTRAMARINO* (Silvina Guglielmotti, Maren Zubeldia) film laburra ere. Larraitz Zuazo eta Zuri Goikoetxearekin batera, *ITOIZ UDAKO SESIOAK* zuzendu du, datozen hilabeteetan estreinatuko den lana.

| | |
|---|---|
| **2025** | *ALTXALILIAK* — Maia Iribarne — Koprodukzioa Gastibeltzarekin, Frantzia (garatzen) |
| **2025** | *ULTRAMARINO* — Maren Zubeldia, Silvina Guglielmotti ekoizten) |
| **2024** | *LE PRIME VOLTE* — Giulia Cosentino, Perla Sardella. Koprodukzioa Malfé Film-ekin, Italia |
| **2024** | *ITOIZ UDAKO SESIOAK* — Larraitz Zuazo, Zuri Goikoetxea, Ainhoa Andraka |
| **2024** | *¡CAIGAN LAS ROSAS BLANCAS!* — Albertina Carri — Koprodukzioa Gentil Cine (Argentina), El Borde (Argentina) eta Punta Colorada-rekin (Brasil) |
| **2023** | *IN A NEARBY FIELD* — Laida Lertxundi, Ren Ebel |
| **2022** | *CABEZA Y CORAZÓN* — Ainhoa Andraka, Zuri Goikoetxea |
| **2021** | *FANTASIA* — Aitor Merino |
| **2019** | *MESETA* — Juan Palacios |
| **2018** | *592 METROZ GOITI* — Maddi Barber |
| **2017** | *EL ÚLTIMO VERANO* — Lina Badenes, Mariona Guiu — Koprodukzioa Turanga Films-ekin, Espainia |
| **2017** | *163 DÍAS. LA HUELGA DE BANDAS* — Larraitz Zuazo |
| **2014** | *ASIER ETA BIOK* — Aitor Merino, Amaia Merino |
| **2012** | *LOS AMORES DIFÍCILES* — Lucina Gil |

BOLUNGRAFIA

# DOXA PRODUCCIONES

Sorkuntza-dokumentalak ekoizten ditugu, bizi garen mundua zalantzan jartzen duen zinemak duen botere eraldatzailean sinesten dugu, eta ikuspuntu berriak proposatzen ditugu, horrela interakziorako modu gizatiarragoak garatzeko.

Gure filmak programatu eta saritu dituzte CPH: DOX, Bafici, Visions du Réel, Viennale, FICG, Pesaro, SSIFF, FICX eta Festival de Málaga jaialdietan.

Besteak beste, honako film luze hauek ekoitzi ditugu: *ASIER ETA BIOK* (Asier Y yo) (Amaia eta Aitor Merino, 2014), Irizar Saria Donostiako Nazioarteko Zinemaldian, nazioarteko estreinaldiaren ondoren (30.000 ikusle izanik Espainian), 8 hizkuntzara itzulia eta 20 herrialdetan baino gehiagotan ikusia; *MESETA* (Juan Palacios, 2019), nazioartean estreinatua CPH: DOXen eta Epaimahaiaren Aipamen Berezia jaso zuena; eta *FANTASIA* (Aitor Merino, 2021), Ikusmira Berriak (Tabakalera) aretoetatik igaro ondoren, Malagako Zinemaldian estreinatu, eta Netflix Europak eskuratu zuena. 2022an *CABEZA Y CORAZÓN* (Ainhoa Andraka eta Zuri Goikoetxea, 2022) ekoitzi genuen, Gijongo Nazioarteko Zinemaldian estreinatu zen eta Europa Gazte Publikoaren Saria lortu zuen Film Luzeen Zuzendaririk Onenaren kategorian.

Hainbat film labur ekoitzi dugu, esate baterako, *592 METROZ GOITI* (Maddi Barber, 2018), Visions du Réelen (Suitza) nazioartean estreinatu eta SSIFFen Zabaltegi sailean estreinatu ondoren, Kimuak 2018 katalogoan sartu dena; *IN A NEARBY FIELD* (Laida Lertxundi eta Ren Ebel, 2023), Edinburgo Film Festival, Open City (Londres) eta Viennale (Viena) nazioarteko zinemaldi ospetsuetan estreinatua eta proiektatua, eta estreinaldi nazional bikoitza izan duena Zinebin eta Gijonen; eta *LE PRIME VOLTE* (Giulia Cosentino eta Perla Sardella, 2024), Malfé Films-ekin (Italia) egindako koprodukzioa, datozen hilabeteetan estreinatuko dena.

Enkarguko filmei dagokienez, berariaz nabarmentzen ditugu Azkuna Zentroan Paul B. Preciadok komisariatutako Cabello/Carceller-en *AHOTS BAT ERAUSORENTZAT* erakusketaren pieza nagusiaren ekoizpena, filmaketa eta muntaketa, eta Euskaltelentzat ekoitzitako *MAREA LARANJA* dokumentalaren gidoia eta muntaketa.

Orain, *ITOIZ UDAKO SESIOAK* (Larraitz Zuazo, Zuri Goikoetxea, Ainhoa Andraka) filmarekin ari gara, Work In Progress gisa aukeratua CannesDocs 2023an eta azaroan estreinatuko dena; eta *¡CAIGAN LAS ROSAS BLANCAS!* filmarekin ere bai (Albertina Carri, 2024), Gentil Cine (Argentina), El Borde (Argentina) eta Punta Coloradarekin (Brasil) batera ekoitzia, 2025. urtearen hasieran estreinatuko dena.

Azkenik, Maia Iribarneren *ALTXALILIAK* proiektu dokumentala garatzen ari gara, Iparralde Gastibeltza ekoiztetxearekin koprodukzioan, eta *ULTRAMARINO* film laburra ekoizten (Maren Zubeldia eta Silvina Guglielmotti).

# DOXA PRODUCCIONES

## BIOFILMOGRAFIA

| | |
|---|---|
| **2025** | *ALTXALILIAK* — Maia Iribarne — Koprodukzioa Gastibeltzarekin, Frantzia (garatzen) |
| **2025** | *ULTRAMARINO* — Maren Zubeldia, Silvina Guglielmotti (ekoizten) |
| **2025** | *LE PRIME VOLTE* — Giulia Cosentino, Perla Sardella — Koprodukzioa Malfé Film-ekin, Italia |
| **2024** | *ITOIZ UDAKO SESIOAK* — Larraitz Zuazo, Zuri Goikoetxea, Ainhoa Andraka |
| **2024** | *¡CAIGAN LAS ROSAS BLANCAS!* — Albertina Carri — Koprodukzioa Gentil Cine (Argentina), El Borde (Argentina) eta Punta Colorada-rekin (Brasil) |
| **2023** | *IN A NEARBY FIELD* — Laida Lertxundi, Ren Ebel |
| **2022** | *CABEZA Y CORAZÓN* — Ainhoa Andraka, Zuri Goikoetxea |
| **2021** | *FANTASIA* — Aitor Merino |
| **2019** | *MESETA* — Juan Palacios |
| **2018** | *592 METROZ GOITI* — Maddi Barber |
| **2017** | *EL ÚLTIMO VERANO* — Lina Badenes, Mariona Guiu — Koprodukzioa Turanga Films-ekin, Espainia |
| **2017** | *163 DÍAS. LA HUELGA DE BANDAS* — Larraitz Zuazo |
| **2014** | *ASIER ETA BIOK* — Aitor Merino, Amaia Merino (2014) |
| **2012** | *LOS AMORES DIFÍCILES* — Lucina Gil |

# PRONOZIKO MATERIALA

KARTELA

TRAILERRA

ZUZENDARIEN ARGAZKIAK

STILL-AK

CLIPAK

# PALMARES

## WORK IN PROGRESS

| | |
|---|---|
| **2021** | Zinebi Networking, Espainia. |
| **2023** | Cannes Docs, Frantzia. |

## ESTREINALDIAK

| | |
|---|---|
| **AZA 2024** | Mundu mailako estreinaldia ZINEBI — Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdian — eta Festival Internacional de Cine de Gijón [FICX]-eko sail ofizialetan. |
| **...** | ... |

# CLIPPING-A

*"Itoiz Udako Sesioak, bost urteko lana musika talde ikonikoari buruzko dokumentalari forma emateko"*

— EITB —

*"Itoizen musika entzungai Cannesen"*

— Deia —

*"Itoiz berriro hegan ari da pelikula batean"*

— El Correo —

*"Itoiz Udako Sesioak, betiko akordeen arteko bidaia"*

— Naiz —

*"Itoiz Udako Sesioak, Zinebin eta Gijongo Nazioarteko Zinemaldian estreinatuko da"*

— Mundo Plus —

*"Itoiz Udako Sesioak, Itoiz euskal rock taldeari buruzko dokumentala, Canneseko Marché du Filmen aurkeztuko da"*

— Cine Con Ñ —

# KONTAKTUA


## MIREN APERRIBAY

BANATZAILEA

miren@aterafilms.com
Tel (+34) 629 308 378
www.aterafilms.com

## SONIA URÍA

PRENTSA ETA KOMUNIKAZIOA

suria@suriacomunicacion.com
Tel (+34) 686 928 906
www.suriacomunicacion.es

## AINHOA ANDRAKA

EKOIZLEA

ainhoa.andraka@doxaproducciones.com
Tel (+34) 666 072 804
doxaproducciones.com

## ZURI GOIKOETXEA

EKOIZLEA

zuri.goikoetxea@doxaproducciones.com
Tel (+34) 689 760 961
doxaproducciones.com